

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**

**Consortio de Aguas de Bilbao Bizkaia**

**2019**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA .....	9
II. IRITZIA .....	11
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	11
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia .....	11
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	12
III.1 Langileen gastuak.....	12
III.2 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea.....	12
III.3 Transferentziek eta kapitalezko dirulaguntzek eragindako gastuak .....	13
III.4 Beste alderdi batzuk .....	14
IV. URTEKO KONTUAK.....	15
IV.1 Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Urteko Kontuak .....	15
IV.2 Udal Sareak SAren Urteko Kontuak .....	19
IV.3 Bilboko Urak SAren Urteko Kontuak, likidazioan.....	19
ERANSKINAK .....	21
A    Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa .....	21
A.1 Araudi ezargarria .....	21
A.2 Aurrekontua, aurrekontuko aldaketak eta konpromiso-kredituak .....	22
A.3 Langileen gastuak.....	23
A.4 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	25
A.5 Inbertsio errealak eta ibilgetu ukiezin eta materiala .....	25
A.6 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	26
A.7 Inbertsio finantzarioak eta aktibo finantzarioen bariazioa .....	27
A.8 Tasak eta bestelako sarrerak .....	28
A.9 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	29
A.10 Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	31
A.11 Zorrak eta hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.....	31
A.12 Aurreko ekitaldietako emaitzak .....	32
A.13 Aurrekontuaren eta ondare emaitzaren arteko kontziliazioa .....	32
A.14 Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa.....	33



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>B</b>	<b>Udal Sareak SA</b> .....	<b>37</b>
B.1	Informazio orokorra .....	37
B.2	Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa .....	38
<b>C</b>	<b>Egoera finantzario bateratuak</b> .....	<b>39</b>
<b>ABREVIATURAS</b> .....		<b>41</b>
<b>I.</b>	<b>INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>43</b>
<b>II.</b>	<b>OPINIÓN</b> .....	<b>45</b>
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	45
II.2	Opinión sobre las Cuentas Anuales .....	45
<b>III.</b>	<b>CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN</b> .....	<b>46</b>
III.1	Gastos de personal .....	46
III.2	Contratación de bienes y servicios .....	46
III.3	Gastos por transferencias y subvenciones de capital. ....	47
III.4	Otros aspectos .....	48
<b>IV.</b>	<b>CUENTAS ANUALES</b> .....	<b>50</b>
IV.1	Cuentas Anuales del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia .....	50
IV.2	Cuentas Anuales de Udal Sareak, SA. ....	54
IV.3	Cuentas Anuales de Aguas de Bilbao, SA, en liquidación .....	54
<b>ANEXOS</b> .....		<b>55</b>
<b>A</b>	<b>Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia</b> .....	<b>55</b>
A.1	Normativa aplicable .....	55
A.2	Presupuesto, modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso .....	56
A.3	Gastos de personal .....	57
A.4	Compra de bienes corrientes y servicios .....	59
A.5	Inversiones reales e inmovilizado intangible y material .....	59
A.6	Transferencias y subvenciones concedidas .....	60
A.7	Inversiones financieras y variación de activos financieros .....	61
A.8	Tasas y otros ingresos .....	62
A.9	Ingresos por transferencias y subvenciones .....	63
A.10	Deudores y otras cuentas a cobrar .....	65
A.11	Deudas y acreedores y otras cuentas a pagar .....	65
A.12	Resultados de ejercicios anteriores .....	66
A.13	Conciliación resultado presupuestario-patrimonial .....	66
A.14	Análisis de contratación de bienes y servicios .....	67



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>B</b>	<b>Udal Sareak, SA</b> .....	<b>71</b>
B.1	Información general.....	71
B.2	Análisis de contratación de bienes y servicios.....	72
<b>C</b>	<b>Estados Financieros Consolidados</b> .....	<b>73</b>

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 27a

Vitoria-Gasteiz, 27 de mayo de 2021





## LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
BBUP	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
BEZ	Balio erantsiaren gaineko zerga
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EUTE	Edateko Ura Tratatzeko Gunea
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia:
HUA	Hondakin-uren Araztegi
LZ	Lanpostuen Zerrenda
PFEZ	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2020rako Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren 2019ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

HKEEk gauzatutako BBUPren aurreko fiskalizazio lana 2016ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: BBUPren kontuak eta BBUPren partaidetza gehiengoa duten sozietate publikoen Kontuak -Udal Sareak SA eta Bilboko Urak SA, likidazioan,- ezargarri zaizkien kontularitzako printzipioen arabera gauzatu diren aztertzen da. BBUPren eta Udal Sareak SAren kontuak kanpoko enpresa batek auditatu ditu.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

BBUP 1967ko martxoaren 17an sortu zuten Bilbo Handia Udabatza Administratiboaren eta data horretan partaide ziren udalen artean. Berezko nortasun eta gaitasun juridikoa du, martxoaren 30eko 3/1995 Foru Arauan –Bizkaiko Udalez gaindiko Erakundeak arautzen dituen- eta apirilaren 2ko 7/1985 Legean –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen- xedatutakoaren arabera. BBUPren Batzar Nagusiak 2014ko azaroaren 5ean estatutuak aldatu zituen eta horren ondorioz, BBUP Bizkaiko Foru Aldundira atxikita geratu da.

BBUPren jarduera nagusia partaide diren udalerrien lurralde esparruan uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea da, lurralde esparru horretan hiri uraren zikloaren kudeaketaren integrazio, zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasun eta tarifen uniformetasun printzipioetan oinarritutakoa. 2019ko abenduaren 31n partzuergoko udalen kopurua 81 udalerrikoa da, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagozkionak eta atal honen amaieran zerrendatu ditugunak.

2000ko maiatzaren 9an eratu zen Udal Sareak SA sozietatea eta bere egitekoa lotua dago uraren azpiegiturako obra publikoen kudeaketarekin eta uraren zerbitzu publikoari dagozkion zerbitzuekin, hornidura eta saneamendua bi atalak besarkatzen dituela, bai sare nagusian, bai bigarren mailakoan, bere izenean, BBUPren –akziodun bakar dena- kontura eta haren aginduz. 2019ko ekainaren 30ean, BBUPk amaitutzat eman zituen Udal Sareak SA enpresaren alde egindako mandatuak eta ondorioz, Udal Sareak sozietateak bere aktiboak, kontratuak eta langileak BBUPra transferitu zituen, eta honek 2019ko uztailaren 1ean bere gain hartu zuen zerbitzuak ematea (ikus B.1).

2000ko uztailaren 28an Bilboko Urak, SA sozietatea eratu zen BBUPk kanpoan zuen jarduera kudeatzeko; BBUPk kapital sozialean % 51ko partaidetza du. 2017ko azaroaren 10ean,

bazkideen Ezohiko Batzar Orokor Unibertsalak erabaki zuen sozietatea desegitea eta likidazio-epea irekitzea; txosten hau idatzi dugun egunean oraindik likidazioan dago (ikus A.7).

#### PARTZUERGOKO UDALERRIEN ZERRENDA

---

Abadiño	Durango	Laukiz	Sestao
Abanto-Zierbena	Elorrio	Leioa	Sondika
Alonsotegi	Erandio	Lekeitio	Sopela
Amoroto	Ereño	Lemoa	Sopuerta
Arantzazu	Etxebarri	Lemoiz	Trucios-Turtzioz
Areatza	Etxebarria	Lezama	Ubide
Arrigorriaga	Fruiz	Loiu	Ugao-Miraballes
Artea	Galdakao	Mañaria	Urduliz
Atxondo	Galdames	Markina-Xemein	Urduña
Aulesti	Gamiz-Fika	Maruri-Jatabe	V. Trápaga-Trapagaran
Bakio	Gatika	Mendexa	Zaldibar
Balmaseda	Getxo	Morga	Zalla
Barakaldo	Gizaburuaga	Mungia	Zamudio
Barrika	Gordexola	Munitibar-Arbatzegi- Gerrikaitz	Zaratamo
Basauri	Gorliz	Muskiz	Zeanuri
Bedia	Güeñes	Nabarniz	Zeberio
Berango	Igorre	Ondarroa	Zierbena
Berriatua	Ispaster	Ortuella	Ziortza-Bolibar
Bilbao	Iurreta	Plentzia	
Derio	Izurtza	Portugalete	
Dima	Larrabetzu	Santurtzi	

---



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. BBUPk mugaeguneratutako bost zerbitzu-kontraturi dagokien gastua gauzatzen jarraitu du eta zerbitzu horiei dagozkien kontratu berrien lizitazioa SPKLren 29.4 artikuluan aurreikusitako gutxieneko hiru hilabeteko aurrerapenik gabe egin da, jatorrizko kontratuak gauzatzen jarraitzeko. Hori dela eta, 2019ko ekitaldian mugaeguneratutako kontratuen 1,6 milioi euroren gastuak ez du kontratazio-araudia betetzen. Bestalde, instalazioetako zaintza- eta segurtasun-kontratua 2020an gauzatzen jarraitzen da, 905.465 euroan, eta guztira hamahiru hilabete egingo ditu, aipatutako artikulua gehienez bederatzi hilabete ezartzen dituenean (ikus A.14.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, zuzentasunez bete dute 2019ko ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2019ko aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### III.1 LANGILEEN GASTUAK

Atal honetan honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Zuzendaritza Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 28an, 2016-2019 aldirako indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoarekin bat etorriz, 411.255 euroren funts ekonomikoa ordaintzea onartu zuen, langileei 2019ko ekitaldiko helburuen betetze-mailaren arabera ordaintzeko. Ordainketa egiteko justifikazioak erreferentzia egiten dio hasiera batean aurreikusitako kudeaketarako helburuei eusteari, helburu horiek zeintzuk diren eta nola bete diren zehaztu gabe; gainerako balorazioak dira, besteak beste, zerbitzuak areagotzeari, fakturazioko ehunekoak hobetzeari eta langileen inplikazioari buruzko irizpen globalak eta generikoak.
- 2019ko ekitaldiko jardunaren ebaluazioa aztertuta, karrera profesional horizontalaren garapenetik eratorritako gradua kobratzeko beharrezkoa dena eta 2020ko lehen bi hilabeteetan egin behar dena, ikusi da ebaluazio horiek ez direla egin 4 zuzendaritzatako guztira hautatutako 84 lanpostutatik 16tan.

#### III.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

##### Kontratazio espedienteak (ikus A.14.1 eta B.2)

Aztertu ditugun bai BBUPen bai Udal Sareak SAREN kontratazio-espediente guztietan honako alderdi orokor hauek ikusi ditugu; horiei SPKL zaie aplikagarria, zeina 2018ko martxoan jarriko baita indarrean:

- Gastuaren beharra justifikatzeko memorian ez da jasotzen SPKLk agintzen duen alderdi guztien justifikazioa. Alderdi horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: kaudimen tekniko edo profesional, ekonomiko eta finantzarioko irizpideen justifikaziorik eza, kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideen justifikaziorik eza, eta prezioaren irizpidea baloratzeko erabilitako formulen justifikaziorik eza.
- Administrazio-klausula berezien agiriek ez dituzte adierazten lizitazioaren oinarritzako aurrekontua zehazteko kalkulaturako kostu zuzenak eta zeharkakoak eta balizko beste gastu batzuk.
- Kontratazio-mahaiaren aktak ez dira behar bezala argitaratzen kontratatzailearen profileen; izan ere, espediente bat baino gehiago biltzen dituzten aktak osorik argitaratzen dira aipatzen diren espediente batzuetan, baina ez aipatzen diren guztietan, eta, beraz, publikitatea akastuna da.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hona hemen aztertutako espediente batzuetan azaleratu diren beste alderdi aipagarri batzuk:

- Guztira 9,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratu baten pleguetan barne hartutako formula aplikatzean (9 zk. espedienteak), prezio batek lizitazio tipoa berdinduz gero, puntuazio eskuratuko luke eskaintza ekonomikoa irizpidearen balorazioan.
- 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratazio-espediente batean (12. espedienteak), % 10eko haztapena duen eta "baloratu beharreko beste alderdi eta irizpide batzuk" izena duen esleipen-irizpideetako batean, legezko eskakizunak balioesten dira (laneko prebentzio-plana eta ingurumenaren jarraipena egiteko plana, besteak beste), eta ez dira eskaintzak balioesteko irizpide onargarriak, ez baitzaizkio zuzenean kontratuaren xedeari lotzen.
- Aztertutako hamazazpi kontratazio espedientetan (1etik 15era, 18 eta 20 zk. espedienteak) , guztira 117,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan, hilabetetik gorako atzeraldiak azaleratu dira proposamenak irekitzen direnetik esleipena egiteko finkatutako bi hilabeteen aldean. Espediente horietako hamaikatan atzerapena 3 hilabetetik gorakoa da.
- Guztira 112,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hamahiru kontratazio-espedientetan (4, 5, 9, 11tik 20ra bitarteko espedienteak), EBAOn hilabete bat baino gehiagoko atzerapenarekin argitaratzen da esleipena, araudian ezarritako 15 eguneko epearen aldean. Akats hori bera gertatzen da Udal Sareak SAK lizitatutako eta BBUPk egikaritutako bi espedientetan, guztira 690.791 euroan esleitutakoetan (1 eta 3 zk. espedienteak, ikus B.2). Aipatutako espediente guztietatik bostetan, atzerapena hiru hilabetetik gorakoa da.

### **Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua (ikus A.14.2)**

Mugaeguneratutako kontratuei dagozkien eta guztira 4,8 milioi euroren gastua egin duten hamar zerbitzu-espedientetan, non kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago egin den, ez da inolako agiririk egin kontratua gehienez bederatzi hilabetez exekutatzeko jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, hau da, esleipen-prozeduran aurreikusi ezin diren gertaerek eragindako gorabeherak daudela eta zerbitzua ez eteteko guztien intereseko arrazoiak daudela egiaztatzen duen dokumenturik.

### **III.3 TRANSFERENTZIEK ETA KAPITALEZKO DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO GASTUAK**

2019ko ekitaldian partzuergoko udalekin sinatutako indarreko hitzarmenei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Sestaoko Udalarekin 2016an sinatutako hitzarmenak eta Barakaldoko Udalarekin 2018an sinatutako akordioak ekarpenak justifikatzen dituzte udalerrri horietan kokatutako azpiegituretatik eratorritako kargak eta onurak banatzeko konpentsazio gisa,



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

saneamendu-sistema nagusiari mesede egiten diotenak; hitzarmen eta akordio horien bidez BBUPk konpromisoa hartu zuen, besteak beste, hiri-bilbean eta udal-ekipamenduetan 6,6 milioi euroren eta 1,3 milioi euroren hobekuntzak egiteko udal-jarduerak finantzatzeko (ikus A.6). Gure ustez, prozedura orokor bat ezarri beharko litzateke, partzuergoko erakunde guztientzat konpentsazio horiek jasotzeko eskubidea eman dezaketen inguruabarrak eta horien kuantifikazioa zehazteko.

- BBUPk hitzarmen bat sinatu du 2019an Abanto Zierbenako Udalarekin, eta, horren bidez, 180.000 euroren konpromisoak hartu ditu. Konpromiso horiek ez daude jasota ez aurrekontu arruntan, ez etorkizuneko aurrekontuetan.

### III.4 BESTE ALDERDI BATZUK

Bilboko Udalak eta BBUPk 2017ko ekainaren 30ean sinatutako "Ordunte-Sollano eta Zadorra-Venta alta hornidura-sistemen kudeaketa bateratu eta integraturako akordioa" dela eta (ikus A.9), honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Akordioak 16 Hm3-ko berme-atalasea ezartzen du, BBUPk Bilboko Udalari fakturatuko ez diona, akordio hori egin ezean udalak izango lukeen ur-horniduraren kostua ez aldatzeko. Atalase horrek gainditu egiten du kudeaketa bateratu eta integratuaren akordioaren aurreko urteetan udalak Orduntetik jaso duen ur-kantitatearen batez bestekoa. Bestalde, ez da aurreikusten urteko berrikuspenik edo likidaziorik egitea udalaren benetako kontsumoen eta Orduntetik eskuratutako urak batez beste haren kontsumoan zuen ehunekoaren arabera. Gainera, ez da aurreikusten ezarritako berme-atalasearen berrikuspenik egitea, eta horrek eragin berezia du; izan ere, akordioaren indarraldia 20 urtekoa da, eta beste 20 urtez luzagarria da.
- BBUPk, udalarekin lankidetzan, konpromisoa hartu du hitzarmenaren indarraldiko lehen urtean, lagatako azpiegitura eta instalazioen inbertsio-plana egiteko. Txosten hau idatzi den datan, ez da Plan hori egin.

BBUPren eta hainbat udalen artean sinatutako bigarren mailako sarearen kudeaketa-, mantentze-, ustiapen- eta birjarpen-hitzarmenei dagokienez – horien bidez, BBUPk eskumen horiek bere gain hartu ditu –, 2019ko abenduaren 31n 47 udalek gauzatu gabe dituzte 21,8 milioi euroren inbertsioak. Inbertsio horiei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Hemeretzi udalek epea luzatzeko eskatu dute sinatutako hitzarmenean ezarritako epearekiko, eta horietatik lauk bigarren epe luzapen bat eskatu dute; epe-luzapen guztiak baimendu dira.
- Justifikatu gabeko 535.600 euroren inbertsioak dituzten zazpi udalek ez dute epea luzatzeko eskatu, adostutako epea amaitu denean.

Bigarren mailako sareak BBUPren esku utzi dituzten udalek inbertsio-bolumen handi hori egikaritzeko denboran izandako atzerapena konpondu egin beharko litzateke, BBUPk kudeatutako sare horien funtzionamendu eta aprobetxamendu egokia lortzeko.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV. URTEKO KONTUAK

##### IV.1 BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN URTEKO KONTUAK

##### IV.1.1 AURREKONTUKO KONTUAK

###### A. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2019

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	Eranskina	Aurrekontua			Eskubide kitatuak	Kobran.	Kobr. gabea
		Hasierakoa	Aldak.	Behin bet.			
3.- Tasak eta beste zerga batzuk .....	A8	115.042	-	115.042	116.761	107.210	9.551
4. Transferentzia arruntak .....	A9	2.303	-	2.303	2.132	2.132	-
5.- Ondare sarrerak .....		500	-	500	647	215	432
7.- Kapital transferentziak .....	A9	16.712	-	16.712	19.644	8.372	11.272
8.- Aktibo finantzarioen aldak. ....	A7	44.378	4.854	49.232	1.141	1.141	-
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>178.935</b>	<b>4.854</b>	<b>183.789</b>	<b>140.325</b>	<b>119.070</b>	<b>21.255</b>

GASTUAK	Eranskina	Aurrekontua			Obligazio zorpetuak	Ordaink.	Ordain. gabea
		Hasierakoa	Aldak.	Behin bet.			
1.- Langileria-gastuak .....	A3	27.519	655	28.174	27.480	26.926	554
2.- Ondasun arrunt eta zerb. erosk. ..	A4	76.506	2.702	79.208	64.275	60.871	3.404
3.- Gastu finantzarioak .....		30	-	30	22	22	-
4.- Transferentzia arruntak .....	A6	69	4	73	40	40	-
6.- Inbertsio errealak .....	A5	63.466	145	63.611	30.291	26.742	3.549
7.- Transf. eta kapital-dirulag. ....	A6	1.143	1.324	2.467	1.587	651	936
8.- Aktibo finantzarioen aldak. ....	A7	10.202	24	10.226	10.010	10.010	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>178.935</b>	<b>4.854</b>	<b>183.789</b>	<b>133.705</b>	<b>125.262</b>	<b>8.443</b>

###### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2019

Euroak milakotan

	Hasierako zorra	Baliog.	Kobr. Ordaink.	Azken zorra
Hartzekodunak .....	(10.637)	87	10.550	-



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2019		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....		140.325
Obligazio aitortuak.....		(133.705)
<b>EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA</b>		<b>6.620</b>
Ordaintzeko obligazioak deuseztatzea.....		87
Kobratzeko dauden eskubideak deuseztatzea .....		(884)
<b>EKITALDI ITXIEN AURREKONTUKO EMAITZA</b>		<b>(797)</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>5.823</b>
<b>AURREKONTU EMAITZARI DOIKETAK</b>		
Gastatutako kredituak, Gastu orokorretarako diruzaintza geldikin bidez finantzatuak .....		1.441
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak .....		21
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak.....		(423)
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>		<b>6.862</b>

D. DIRUZAINZA GELDIKINA 19.12.31n		Eranskina	Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak .....			177.563
Aurrekontu arruntetik kobratzeko dauden eskubideak .....	A10		21.255
Aurrekontu itxietatik kobratzeko dauden eskubideak .....	A10		5.446
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik kobratzeko dauden eskubideak .....	A10		4.240
Aurrekontuko eragiketetatik ordaintzeko dauden obligazioak .....	A11		(8.443)
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik ordaintzeko dauden obligazioak .....	A11		(4.355)
Aplikatzeko dauden kobrantzak .....	A11		(17.290)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA 2019.12.31N</b>			<b>178.416</b>
Atxikitako finantzaketa-soberakina.....			(723)
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	A10		(6.272)
Jasotzeko dauden fakturak (ekitaldiko gastua).....	A11		(2.253)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 2019.12.31N</b>			<b>169.168</b>

E. KONPROMISO-KREDITUAK (ikus A2 Eranskina)		Euroak milakotan				
	2020	2021	2022	2023 eta hurr.	GUZTIRA	
Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak .....	1.762	3.208	527	6	5.503	
Inbertsio errealak .....	48.038	42.703	29.437	20.847	141.025	
Kapitalezko transferentziak .....	600	500	500	1.800	3.400	
<b>GUZTIRA</b>	<b>50.400</b>	<b>46.411</b>	<b>30.464</b>	<b>22.653</b>	<b>149.928</b>	





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.1.2 ONDARE KONTUAK

A. BALANTZEAK 2019 eta 2018ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eranskina	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eransk.	2019	2018
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>914.374</b>	<b>918.900</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>1.100.256</b>	<b>1.099.176</b>
Ibilgetu ez-materiala .....	A5	22.438	23.651	Ondarea .....		436.764	436.764
Ibilgetu materiala .....	A5	854.101	865.916	Aurreko ekitaldietako emaitzak...	A12	178.775	176.928
Taldeko erak. finantza inb.....	A7	1.429	1.440	Ekitaldiko emaitza.....		3.744	2.046
Finantza inbertsioak epe luzera .....	A7	36.406	27.893	Bst. ond. igo. batz., emaitz. egozteke	A9	480.973	483.438
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>1.423</b>	<b>1.427</b>
				Epe luzeko zorrak .....	A11	1.136	1.136
				Taldeko erakundeekin zorrak .....	A7	287	291
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>218.510</b>	<b>213.605</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>31.205</b>	<b>31.902</b>
Izakinak .....		728	710	Epe motzeko hornidurak.....		-	499
Zordunak eta kobr. bst knt b.....	A10	39.732	36.408	Epe motzeko zorrak .....	A11	1.103	977
Finantza inbertsioak epe laburrera..	A7	487	378	Hartzek. eta ordaint. bst knt b. ...	A11	30.102	30.426
Eskud. & b. aktibo lik. baliok. batz.		177.563	176.109				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>1.132.884</b>	<b>1.132.505</b>	<b>ONDARE GARB. ETA PASIB. GUZTIRA</b>		<b>1.132.884</b>	<b>1.132.505</b>

B. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua 2019 eta 2018		Euroak milakotan	
	Eranskina	2019	2018
Zerga sarrerak .....		108.639	106.113
Jasotako transf. eta dirulaguntzak .....		23.889	22.636
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak .....		329	202
Izakinen bariazioa.....		889	462
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b. ....		8.066	7.533
Hornidura gehiegizkoak .....		150	-
Langileen gastuak .....		(27.545)	(26.028)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....		(2.516)	(4.243)
Hornikuntzak .....		(4.129)	(3.270)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....		(62.517)	(61.902)
Ibilgetua amortizatzea .....	A5	(41.663)	(39.688)
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>		<b>3.592</b>	<b>1.815</b>
Ibilgetu ez finantzarioako dirulaguntzak egozteak.....		23	-
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....		90	(3)
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>3.705</b>	<b>1.812</b>
Sarrera finantzarioak .....		929	1.107
Gastu finantzarioak .....		(162)	(182)
Balioaren narriad., bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentz.....		(728)	(691)
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>39</b>	<b>234</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA</b>		<b>3.744</b>	<b>2.046</b>



C. Ondare garbian aldaketan egoera guztira, 2019ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	Ondarea	Sortutako ondarea	Ondareko bestel. igoerak	Guztira
<b>1. Ondare garbiko aldaketan egoera, guztira</b>				
Ondare garbia, 2018ko ekitaldiaren bukaeran .....	436.764	178.974	483.438	1.099.176
2019ko doituako hasierako ondare garbia.....	436.764	178.974	483.438	1.099.176
Ekitaldian aitortutako sarrerak eta gastuak.....	-	3.744	(2.465)	1.279
Ondare garbiaren bestelako eragiketak.....	-	(199)	-	(199)
2019ko ekitaldiko ondare garbiaren bariazioa.....	-	3.545	(2.465)	1.080
<b>Ondare garbia, 2019ko ekitaldiaren bukaeran</b>	<b>436.764</b>	<b>182.519</b>	<b>480.973</b>	<b>1.100.256</b>
			2019	2018
<b>2. Sarrera eta gastu aitortuen egoera</b>				
Ondarearen emaitza ekonomikoa .....			3.744	2.046
Ondare garbian jasotako aitortutako sarrerak eta gastuak.....			21.399	20.832
Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontura transferentziak.....			(23.864)	(22.585)
<b>Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira</b>			<b>1.279</b>	<b>293</b>
<b>3. Entitate jabeekiko eragiketan egoera</b>				
Ondare garbian aitortutako sarrera eta gastuak, jasotako dirulaguntzengatik....			2.929	2.976
<b>Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira</b>			<b>2.929</b>	<b>2.976</b>

D. Eskudiruzko fluxuen egoera 2019ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	2019	2018
Jasotako transferentzia eta dirulaguntzen kobrantzak .....	18.604	23.753
Egiazko salmenten kobrantzak eta zerbitzuen prestazioak .....	115.734	112.473
Interes eta dibidendu kobratuak.....	583	385
Bestelako kobrantzak.....	46.741	44.373
Langileria-gastuen ordainketak .....	(27.449)	(26.026)
Emandako transferentzia eta dirulaguntzen ordainketak.....	(2.805)	(2.189)
Bestelako kudeaketa gastuen ordainketak .....	(66.098)	(63.197)
Interesen ordainketak .....	(22)	(8)
Beste ordainketa batzuk.....	(46.362)	(45.034)
<b>Kudeaketa jardueretako eskudiru fluxu garbiak</b>	<b>38.926</b>	<b>44.530</b>
Aktibo finantzarioen salmentengatiko kobrantzak .....	1.141	208
Inbertsio errealen erosketagatiko ordainketak .....	(29.428)	(30.201)
Aktibo finantzarioen erosketagatiko ordainketak .....	(10.010)	(10.228)
<b>Inbertsio eragiketengatik eskudiruzko fluxu garbiak</b>	<b>(38.297)</b>	<b>(40.221)</b>
Aplikatze dauden kobrantzak.....	200.637	171.545
Aplikatze dauden ordainketak.....	(199.812)	(172.436)
<b>Sailkatze dauden eskudiruzko fluxu garbiak</b>	<b>825</b>	<b>(891)</b>
Eskudiruaren eta aktibo likido baliokideen hazk. garbia.....	1.454	3.418
Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ek. hasieran....	176.109	172.691
<b>Eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldi bukaeran</b>	<b>177.563</b>	<b>176.109</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.2 UDAL SAREAK SA-REN URTEKO KONTUAK

A. Balantzea 2019ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2019	2018	PASIBOA	2019	2018
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	-	64	<b>ONDARE GARBIA</b>	603	603
Ibilgetu materiala .....	-	42	Funts propioak .....	603	603
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	-	22			
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>6.542</b>	<b>33.270</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>5.939</b>	<b>32.731</b>
Merkat. zordunak eta kobr. bestel. knt	5.983	32.596	Merkat. hartzek. eta ordaint. bst knt b.....	5.939	32.731
Epe motzeko finantza inbertsioak .....	10	7			
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....	549	667			
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>6.542</b>	<b>33.334</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>	<b>6.542</b>	<b>33.334</b>

B. Galera eta irabazien kontua, 2019ko urtekoa		Euroak milakotan	
	Eranskina	2019	2018
Negozio zifraren zenbateko garbia .....	B1	4.110	8.425
Hornikuntzak .....	B3	(3.336)	(7.185)
Bestelako ustiaketa-sarrerak .....		(316)	130.105
Langileen gastuak .....	B2	(487)	(931)
Ustiapeneko beste gastu batzuk .....		72	(130.394)
Ibilgetua amortizatzea .....		(44)	(12)
Beste emaitza batzuk .....		1	(6)
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		-	2
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>		-	2
Mozkinen gaineko zerga		-	(2)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA</b>		-	-
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		-	-

## IV.3 BILBOKO URAK SA-REN URTEKO KONTUAK, LIKIDAZIOAN

A. Balantze laburtuak 2019ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2019	2018	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2019	2018
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	-	-	<b>ONDARE GARBIA</b>	1.608	1.630
			Eskrituran jasotako kapitala.....	2.293	2.293
			Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(663)	(645)
			Ekitaldiko emaitza.....	(22)	(18)
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>1.616</b>	<b>1.666</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>8</b>	<b>36</b>
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...	1.616	1.666	Epe motzeko bestel. zorrak .....	8	36
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>1.616</b>	<b>1.666</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>	<b>1.616</b>	<b>1.666</b>

B. Galera eta irabazien kontu laburtua, 2019ko ekitaldikoa		Euroak milakotan	
		2019	2018
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....		(22)	(18)
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		<b>(22)</b>	<b>(18)</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>		<b>(22)</b>	<b>(18)</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		<b>(22)</b>	<b>(18)</b>



## ERANSKINAK

### A BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA

#### A.1 ARAUDI EZARGARRIA

BBUPren Estatutuen 1. artikulua 4. atalak agintzen du Partzuergoa Bizkaiko Foru Aldundiari atxikia geratuko dela eta foru araudiak erabakiko duela atxikipen horren edukia eta irismena. BFaren Diputatuen Kontseiluak zenbait erabaki hartu zituen BBUPri ezargarriak zaizkion aurrekontu, kontabilitate, kontrol, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren jasangarritasun araubidea onestearekin lotuta, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina onartzen duen 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen zazpigarren xedapen gehigarriaren aurreikuspeni jarraikiz. Erabaki hauek honako hauek egiten die aipamen, nagusiki:

- BBUPri ezargarria zaion ondare kontabilitateko araubidea BFaren abenduaren 27ko 219/2011 Foru Dekretuan finkatutakoa izango da, zeinak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onartzen duen, edo hori ordeztzen duen araudian finkatutakoa.
- BBUPri ezargarria zaion aurrekontuaren egonkortasunari eta finantzaren iraunkortasunari buruzko araudia BFari dagozkion finantza sozietateei dagokiena izango da, SEC10 terminoetan, harik eta sailkapen horri eusten zaion bitartean.
- BBUPri baimena eman bere batzar nagusiak onartutako aurrekontua egiteko irizpideak eta aurrekontuko kontabilitate irizpideak aplikatzeko.

Hona hemen BBUPri aplikagarriak zaizkion arau nagusiak:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarri arauak arautzen dituena eta 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen Gaietan indarreko xedapenen testu bategina onesten duena.
- 39/88 Legea, abenduaren 28koa, Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 3/1995 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, udalaz gaindiko entitateak arautzen dituena.
- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.
- 219/2011 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Aldundiaren Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena, abenduaren 29koa, Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

## A.2 AURREKONTUA, AURREKONTUKO ALDAKETAK ETA KONPROMISO-KREDITUAK

BBUPren 2019ko ekitaldiaren Aurrekontu Orokorra hasiera batean Batzar Nagusiak onartu zuen 2018ko urriaren 30ean. Argitara eman zenetik aurrera erreklamaziorik batere jaso gabe hamabost lanegun igaro ostean, behin betiko onartua geratu zen eta 2018ko abenduaren 7ko BAOn eman zen argitara. Behin betiko aurrekontuaren argitalpenean akatsak antzeman ondoren, zuzendu egin ziren, eta zuzendutako aurrekontua 2019ko otsailaren 25ean argitaratu zen.

2019ko ekitaldiari dagokion BBUPren Kontu orokorra Batzar Nagusiak onartu zuen 2020ko uztailearen 21ean eta onarpena 2020ko uztailearen 23an eman zen argitara BAOn.

Gastuen aurrekontuaren egikaritze maila guztira % 72,7koa izan da. Bi gastu kapituluek, ondasun arrunten kontratazioa eta inbertsio errealak, alegia, % 77 egiten dute aurrekontu osoaren gainean; horien egikaritze gastu arruntaren gainean % 81,1koa izan da eta inbertsio arrunten gainean, berriz % 47,6koa.

### Aurrekontuko aldaketak

Hona hemen 2019ko ekitaldiaren aurrekontuko emaitza:

	Euroak milakotan			
	Geldikinen txertaketa	Kreditu- bajak	Kredituak gehigarriak	GUZTIRA
Langileen gastuak .....	3	-	652	655
Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ....	2.543	(3.554)	3.713	2.702
Transferentzia arruntak .....	4	-	-	4
Inbertsio errealak .....	4.767	(11.742)	7.120	145
Kapitalezko transferentziak .....	1.123	-	201	1.324
Aktibo finantzarioen bariazioa .....	-	-	24	24
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.440</b>	<b>(15.296)</b>	<b>11.710</b>	<b>4.854</b>

Aurrekontuko aldaketa guztiak diruzaintza geldikin bitartez finantzatzen dira.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Konpromiso-kredituak

Hona hemen konpromiso-kredituen xehakapena 2019ko abenduaren 31n, kapituluka eta aurrekontuko egikaritze-faseka:

	Euroak milakotan				
	Eranskina	Guztira	Aurrekontua	Baimendua	Lotua
Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak .....		5.503	540	3.671	1.292
Inbertsio errealak.....	A5	141.025	16.007	66.536	58.482
Kapitalezko transferentziak .....	A6	3.400	-	-	3.400
<b>Guztira</b>		<b>149.928</b>	<b>16.547</b>	<b>70.207</b>	<b>63.174</b>

Ekitaldi itxieran lotu ez diren inbertsio-proiektuei dagokienez, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

### KONPROMISO KREDITUEN EGOERA

	Gastu-fasea	
	2019.12.31	Euroak milakotan
Lehen mailako sarea horn. sist. Enkart. Jarralra-Dep. Avellaneda.....	Baimendua	22.674
Ordunte-Sollano Akordioaren Funtza (ikus A.9) .....	Aurrekontua	16.007
Muskizko HUAren proiektua, obra eta ustiapena .....	Baimendua	12.300
Ikatz aktiboaren bidez iragazteko sistema berritzea EUTE Venta Alta .....	Baimendua	10.976
Erreaktore biologikoa estaltzea eta berritzea HUA Galindo .....	Baimendua	7.518
		<b>69.475</b>

## A.3 LANGILEEN GASTUAK

Langile gastuak honako hauek dira, kontzeptuen arabera xehakatuak:

	Euroak milakotan	
	2019	2018
Langileen ordainsariak .....	20.911	19.232
Gizarte Segurantzza .....	5.350	4.930
Pentsioen sistema osagarriari ekarpenak .....	594	556
Jubilazioagatiko kalte-ordainak .....	-	661
Beste langile gastu batzuk .....	625	614
<b>GUZTIRA</b>	<b>27.480</b>	<b>25.993</b>

### Ordainsariak

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3.2 artikulua arautzen du ordainsarien urteko ordainsari-igoera eta horri dagokionez, honako erabaki hauek hartu dira:



- 2019ko urtarrilean, Lehendakartzaren dekretu bidez, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ordainsarien % 2,5eko igoera onartu zen, lege-aurreikuspen hauetan oinarrituta:
    1. % 2,25eko igoera, 2018rako baimendutako % 1,75eko urteko igoera finkatuaren aldean.
    2. % 0,25eko igoera gehigarria, lege-aurreikuspenen arabera eta besteak beste, helburu hauetarako erabili behar dena: produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko, antzeko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko berariazko osagarriak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko edo pentsio-planetara ekarpenak egiteko. BBUPk igoera hori aplikatzen dio Hitzarmen Kolektiboaren 37. artikuluan aurreikusita dagoen 2010etik galdutako erosteko ahalmena berreskuratzeko neurriari, eta hitzarmenean aurreikusitako soldata-kontzeptu guztiei aplikatzen zaie.
  - 2019ko ekainean, Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen ordainsariak % 0,3 igotzea 2019ko uztailean 1etik aurrerako ondorioekin: % 0,25 KPIaren bilakaerari lotua, eta % 0,3rainoko diferentziala, aurrekontu-superabita duten erakunde publikoentzako legearen 2. paragrafoan aurreikusitako igoerarako.
- Helburuak betetzeagatik ordainsari bat ordaintzea onartu da, 411.256 eurorena.

## Plantilla

2019ko ekitaldirako hasieran onartutako BBUPren aurrekontu-plantilla 359 pertsonakoa da. 2019ko apirilean, Batzar Nagusiak erabaki zuen Udal Sareak SA enpresaren plantilla 14 lanpostutan handitzea eta 2019ko uztailean leian gauzatu zen, BBUPk bere gain hartu zituelako sozietate horri lehen esleitutako eginkizuna. Beraz, 2019ko ekitaldia ixtean, aurrekontu-plantilla 373 plazakoa zen.

2019ko abenduaren 31n, egiazko plantilla 397 pertsonakoa da; horietatik 20 erretiro partziala hartu dutenak dira (lanaldiaren % 25) eta 29 pertsonak ez dute LZko plazarik betetzen, ordezkapenak eta bestelakoak direla medio.

2019ko ekitaldian, 42 lanpostuko Lan Eskaintza Publikoa onartu da; horietatik 35 aldi baterako enplegua egonkortzeko plazei dagozkie. Plaza horietarako deialdia 2019ko ekitaldian egin da, eta ekitaldiaren itxieran ebazteke daude.



#### A.4 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketagatiko gastuaren xehapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
	2019	2018
Kanpoko beste lan batzuk .....	28.753	30.188
Energia elektrikoa.....	8.371	8.523
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza .....	7.927	7.601
Azterketak eta lan teknikoak .....	6.104	6.113
Bestelako hornigaiak .....	2.687	2.543
Erreaktiboak eta laborategiko hornigaiak.....	2.470	2.483
Zergak.....	1.470	1.013
Segurtasuna .....	1.396	1.397
Komunikazioak.....	1.086	1.044
Gasa eta erregaia .....	1.072	583
Garbiketa .....	740	720
Beste kontzeptu txikiago batzuk.....	2.199	2.503
<b>GUZTIRA</b>	<b>64.275</b>	<b>64.711</b>

“Kanpoko beste lan batzuk” kontzeptuak gastu kapitulu honen ekitaldiko gastuaren % 44,7 egiten du eta nagusiki, BBUPren instalazioen ustiapen, mantentze-lan eta laguntza teknikoa emateko kontratuei dagokie.

#### A.5 INBERTSIO ERREALAK ETA IBILGETU UKIEZIN ETA MATERIALA

Hona hemen 2019an aitortutako obligazioak eta datozen ekitaldietarako hitzartutako kredituak, Inbertsio Errealen kapituluan erregistratu direnak:

KONTZEPTUA	Obligazioak	Euroak milakotan
		Konpr.kred. hitzartuak
Lursailak .....	317	-
Hornidura lanak .....	9.147	5.799
Hornidurarako laguntza teknikoak.....	977	1.824
Saneamendu lanak.....	8.154	40.644
Saneamenduko laguntza teknikoak .....	847	2.466
Euskarri Teknologiko eta Berrikuntzan laguntza teknikoak.....	1.160	2.861
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.....	2.441	369
Instalazioak, lanabesak eta erremintak.....	4.995	4.139
Ibilgailuak.....	-	308
Altzariak eta bulegoko ekipoak .....	17	-
Informatikako ekipoak.....	615	66
Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak .....	1.621	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>30.291</b>	<b>58.482</b>

2019ko ekitaldian ibilgetuko kontuen kostuaren eta amortizazio-funtsaren mugimendua honako hau izan da:

	Euroak milakotan			
	Saldoa 2019.1.1	Altak/ Zuzkidura	Eskualdak.	Saldoa 2019.12.31
Ukiezina.....	76.399	2.819	126	79.344
Materiala.....	1.325.908	25.816	(126)	1.351.598
<b>KOSTUA GUZTIRA</b>	<b>1.402.307</b>	<b>28.635</b>	<b>-</b>	<b>1.430.942</b>
Ukiezina.....	(52.748)	(4.158)	-	(56.906)
Materiala.....	(459.992)	(37.505)	-	(497.497)
<b>AMORTIZAZIO FUNTSA GUZTIRA</b>	<b>(512.740)</b>	<b>(41.663)</b>	<b>-</b>	<b>(554.403)</b>
<b>IBILGETU GARBI UKIEZINA GUZTIRA</b>	<b>23.651</b>			<b>22.438</b>
<b>MATERIAL GARBIA GUZTIRA</b>	<b>865.916</b>			<b>854.101</b>

Aurrekontuan erregistratutako 30,3 milioi euroren inbertsio errealean eta 28,6 milioi euroren ibilgetuko alden arteko aldea, funtsean, beste erakunde publiko batzuentzat kudeatutako 1,6 milioi euroren inbertsioei dagokie, 1,6 milioi euroren zenbatekoan, eta ez dira aktibatu ondare-kontabilitatean.

## A.6 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Hona hemen transferentzia arruntek eta kapitalezkoek eragindako gastuak, kontzeptuen arabera xehakatur:

	Euroak milakotan	
	2019	2018
Beste transferentzia batzuk.....	40	32
<b>TRANSFERENTZIA ARRUNTAK GUZTIRA</b>	<b>40</b>	<b>32</b>
Udalentzako laguntza-plana, BBUPk kudeatu gabeko bigarren mailako saretarako...	469	623
Udal sareak birjartzea.....	-	1.113
Sestaoko Udalari dirulaguntza.....	800	900
Barakaldoko Udalari dirulaguntza.....	268	987
Zierbenako Udalari dirulaguntza.....	50	-
<b>TRANSFERENTZIAK ETA KAPITALEZKO DIRULAGUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>1.587</b>	<b>3.623</b>

BBUPren Batzar Nagusiak 2016ko uztailean hitzarmena izenpetu zuen Sestaoko Udalarekin, eta haren indarrez, besteak beste, 12 urteko epean 6,6 milioi euroren ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuen, udalerrriaren hiri-sarea hobetzeko lanetan laguntzeko, ura banatzeko sarea hobetu eta birjartzeko, gune kaltetuak berreskuratzeko, udal ekipamenduak hobetzeko eta energia aurreztu eta iraunkortasuna bermatzeko sistemak ezartzea xede duten ekintzak gauzatzeko; ez dago, baina, helburu bakoitzerako ordaindu beharreko zenbatekoaren xehakapenik. Hitzarmenean ekarpen hauek justifikatzen dira Galindoko Hondakin Uren Araztegiaren kokalekuak, funtzionamenduak eta jarduerak eragindako zama

eta onurak udalerrri erabiltzaile guztien artean banatzean oreka eskuratzeko helburuarekin. 2019ko abenduaren 31n, BBUPk Sestaoko Udalari ordaindutako zenbatekoa 2,6 milioi euro da, eta 2020ko aurrekontuan 600.000 euro gehitzeko daude; konpromiso-kredituen egoera-orriak etorkizuneko konpromisoetarako 3,4 milioi euroren saldoa barne hartzen du (ikus A.2). 0) Bestalde, Udalak justifikatutako zenbatekoaren % 95,8 hiri-bilbearen eta udal-ekipamenduen hobekuntzei dagokie.

2018ko otsailean, BBUPk eta Barakaldoko Udalak akordio bat sinatu zuten eta horren bidez, BBUPk konpromisoa hartu zuen Barakaldoko udalerrian kirol-hiriari eta lorategi botanikoari dagozkien obrak finantzatzeko, guztira 1,3 milioi euroren zenbatekoan, konpentsazio-neurri gisa, Galindoko ekaitz-tanga egiteak udalerrri horretako hiri-ingurunean izango duen eraginagatik, azpiegitura horrek mesede egiten baitio saneamendu-sistema nagusiari.

## A.7 INBERTSIO FINANTZARIOAK ETA AKTIBO FINANTZARIOEN BARIAZIOA

Finantza inbertsioen xehapena eta mugimendua ekitaldian honako hau da:

	Euroak milakotan				
	Saldoa 2019.1.1	Gastuak	Diru-sarr.	Beste batz.	Saldoa 2019.12.31
Udal Sareak SAn partaidetza.....	601	-	-	-	601
Bilboko Urak SAn partaidetza .....	1.170	-	-	-	1.170
Bilboko Urak SAn partaidetzaren narriadura, likidazioan .....	(331)	-	-	(11)	(342)
Aguas del Gran Buenos Aires SAn partaidetza .....	10.820	-	-	-	10.820
Aguas del Gran Buenos Aires SAn partaidetzaren narriadura ...	(10.820)	-	-	-	(10.820)
<b>TALDEKO ENTITATEENTZAT EPE LUZ. FINAN. INBERTS.</b>	<b>1.440</b>	-		<b>(11)</b>	<b>1.429</b>
Epe luzeko zorraren balio adierazgarriak.....	27.104	9.852	(1.000)	(139)	35.817
Epe luzeko kredituak langileentzat.....	239	158	-	(255)	142
Zorraren balio adierazgarrien epe luzeko interesak .....	149	-	-	(127)	22
Epe luzera eraturako gordailuak .....	401	-	(9)	33	425
<b>EPE LUZEKO INBERTSIO FINANTZARIOAK</b>	<b>27.893</b>	<b>10.010</b>	<b>(1.009)</b>	<b>(488)</b>	<b>36.406</b>
Langileentzat epe laburrerako kredituak .....	290	-	(132)	255	413
Zorraren balio adierazgarrien epe laburreko interesak.....	88	-	-	(14)	74
<b>EPE MOTZEKO FINANTZA INBERTSIOAK</b>	<b>378</b>	-	<b>(132)</b>	<b>241</b>	<b>487</b>
<b>AURREKONTUKO GASTUAK ETA SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>10.010</b>	<b>(1.141)</b>	<b>(258)</b>	

### Taldeko entitateetan epe luzeko finantza inbertsioak

Balantzeko idazpuru honi dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Udal Sareak SAn partaidetza % 100ekoa da eta kostuko prezioarekin 601.000 euroren zenbatekoan balioztatua dago.
- Aguas del Gran Buenos Aires SAn % 20ko partaidetza zuen eta 10,8 milioi euroren kostuko prezioa; partaidetza hori osotasunean laga zuen partaidetza kontuen bitartez (% 10 Bilboko Urak, SArri laga zitzaion) eta % 100eko hornidura du BBUPren ibilgetuan



Sozietate hau likidazioan dago eta BBUPren benetako partaidetza Bilboko Urak SAren bitartez % 3,33koa da.

- Likidazioan dagoen Bilboko Urak SA partaidetza % 51koa da eta kostuko prezioan dago balioztatua 1,2 milioi euroren zenbatekoarekin; ordea, partaidetzaren balioa kontularitzako balio garbiari doitzeko 342.000 euroren zuzkidurarekin minoratu da. 2019ko ekitaldiaren hornidurarako zuzkidura 11.000 euro da.

BBUPk Bilboko Urak SAren kapitalaren % 17,7 laga zien bi entitateri partaidetza-kontuetan eta 287.000 euroren zenbateko hori Pasibo ez arrunteko “Taldeko entitateekiko zorrak” kontuan islatu zen.

Bilboko Urak SA likidazio-aldian dago, bazkideen Ezohiko Batzar Orokor Unibertsalak 2017ko azaroaren 10ean sozietatea desegiteko erabakia hartu eta likidazio-epaia ireki ondoren. Sozietatearen memoriak likidazioaren egoerari buruzko ohar bat jasotzen du, eta bertan jakinarazten du Aguas del Buenos Aires SAK hasitako epaiketetan, Estatu Nazionalarekin arbitraje-prozesuetan ebatzitako laudoak betetzeko akordio bat lortu ondoren, Sozietatearen Ezohiko Batzar Nagusiak, 2017ko urriaren 23an, erabaki zuela haietan atzera egitea, eta, ordainketa-akordio bat lortu arte, sozietateak egun Buenos Airesko probintziaren aurka abiaraziak dituen bi prozedurak berriz eteteko eskatu duela. Kontu laburtuak formulatu diren datan, likidatzaileak adierazi du ez dela inolako kopururik jaso, eta, beraz, zuhurtasun-irizpideari jarraituz, ez dela kopururik erregistratu kontuetan.

## A.8 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen tasa eta bestelako sarrerengatik kitatutako eskubideak, kontzeptuen arabera xehakatuak:

	Euroak milakotan	
	2019	2018
Lehen mailako sarera ura hornitzeagatiko tasa.....	24.317	23.554
Abonatuen saneamendua.....	55.907	54.596
Industrien saneamendua.....	5.975	6.468
Bigarren mailako sarera ur-hornidura .....	22.065	20.812
Kontagailuen eta hartuneen parkea.....	4.160	4.137
Diru-bilketa sariak.....	1.839	1.803
Udalen ekarpenak .....	854	976
Bestelako sarrera txikiagoak.....	1.644	1.211
<b>GUZTIRA</b>	<b>116.761</b>	<b>113.557</b>

Aurrekontuaren likidazioak ekitaldian fakturatutako hornidura eta saneamendu tasaren kontzeptuko diru-sarrerak barne hartzen ditu, faktura dataz lehenagoko hiruhilekoaren irakurketei dagozkienak. Horregatik, 2019ko ekitaldiaren itxieran aurrekontuan jasotzeko daude 2019ko ekitaldiko azken hiruhilekoari dagozkion diru-sarrerak, 15,1 milioi euroren

zenbatekoan (ikus A.10); jasoak daude, baina, 2018ko azken hiruhilekoari dagozkionak, 14,7 milioi eurorenak.

## A.9 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen transferentziengatiko aurrekontuko sarrerak:

	Euroak milakotan	
	2019	2018
Hornidura-sistemaren kudeak. bateratua eta integr. Ordunte-Sollano eta Zadorra-Venta Alta ....	2.131	2.030
Beste txiki batzuk .....	1	164
<b>SARRERA ARRUNTAK GUZTIRA</b>	<b>2.132</b>	<b>2.194</b>
Bizkaiko Foru Aldundia.....	18.462	17.268
URA- Uraren Euskal Agentzia.....	100	900
Bizkaiko Garraio Partzuergoa. Saneamendu lanak .....	403	82
Hornidura-sistemaren kudeak. bateratua eta integr. Ordunte-Sollano eta Zadorra-Venta Alta .....	303	300
Udalak Beste erakunde batzuentzat kudeatutako inbertsioak .....	329	202
Beste txiki batzuk .....	47	38
<b>KAPITALEZKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>19.644</b>	<b>18.790</b>

Balantzeko “Emaitzetara egozteko dauden ondareko beste igoera batzuk” kontuaren mugimendua honakoa da:

	Euroak milakotan			
	Saldoa		Emaitzara	Saldoa
	2019.1.1	Gehikuntzak	aplikatzea	2019.12.31
Bizkaiko Foru Aldundia.....	367.741	18.462	(15.532)	370.671
Eusko Jaurlaritza .....	90.849	100	(4.423)	86.526
Beste erakunde batzuk .....	23.825	2.814	(3.844)	22.795
Beste enpresa batzuk.....	1.023	-	(42)	981
<b>GUZTIRA</b>	<b>483.438</b>	<b>21.376</b>	<b>(23.841)</b>	<b>480.973</b>

### Bizkaiko Foru Aldundiarekiko hitzarmena

BFAk eta BBUPk 2008ko ekitaldian hitzarmen bat sinatu zuten saneamendu- eta horniduranak finantzatzeko eta BFAk 381milioi euro jarri zituen. Hainbat aldaketa egin ondoren, 2021. urtera arte luzatu da haren iraupena. 0} 2016ko abenduaren 31n metatutako finantzaketa-zenbatekoa 360 milioi euro da, eta 2021era arte bi urteko gelditzen dira ordaintzeke, guztira 21 milioi euro.

Hitzarmenak agintzen du urtealdia dela BFAk ekitaldietako bakoitzean finantza dezakeen gehiengo zenbatekoa. BBUPk 2019ko abenduaren 31n aitortu dituen sarrerek 11,2 milioi euroan gauditzen dituzte hitzarmenean 2019ko abenduaren 31ra arte aurreikusitako urtekoak. Diferentzia hori urtekoen gainetik gauzatutako inbertsioei dagokie; 10 milioi euro



2020ko ekitaldian kobratuko dira eta gainerakoa 2021ean kobratuko da, ekitaldi horretarako aurreikusitako zenbatekoaren barruan.

## Hornidura-sistemen kudeaketa bateratua eta integratua

